

1909

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVIII garren urtea)

Artzaya, bego mendiyan.

Ez datoz orain euskal-soñuak
auzo-auzoko mendietatik,
artzai-mutillak goiz t'arratsalde
zerizkionak biyotz-barrendik.
¡Zenbat poztutzen ginduzten ayek
gegozanean soro alayan :
atsur t'añsurka gogor batzuek
bestiak berriz makurka layan!
¡A baserriko lan-arazoa,
zenetorkigun arin, leguna,
zenduenean auzo-laguna
ardizayaren kanta gozoa!
bañan artzaya joan dan eskeroz
gure mennditik beste aldera;
ez-eapur bat lengo ez gera,
ez-e langille ordutik geroz;
asnas mugille alaigarriya
bear du bada lan dagienak.....
¡betor ortara artzai-irnenak
gozo zerion neurtitz berriya;
aitzak lez lodi eta gogorra,

loreen gisan sentiraskorra,
 gogamena lez biyotz-elea,
 naikunda bezin eragillea.
 Mendiz zijoan, jayo-ta, latza,
 baso illundik igaro erdi,
 bañan ibar ta soroan garbi
 gogkiurikan genduzkan otsa.
 ¿Noraño zoaz, maitatzalleak
 goibel laja-ta atsekabeen?
 ¿Zenek gošotu izardipenak
 zuk diña goiz ta illun aldean?
 Oraingoz, gure gogo ernaya
 batzar guztien lege t'ekautak
 or daramazki zedorren kantak
 ez dakit nora, ene artzaya :
 Zu zerade-ta, pipaz, abarkaz,
 ĩsapel, ĩsamarraz, gerrikoz, prakaz,
 odol ta sañez gure sendiya
 mendi goyeko koblakariya.

.....
 Erdal-errira zertara zoaz?
 zer lezateke zure ojuaz
 aditu garbi ango jendeak
 beste ele ta soñu zaleak?
 an !.... euskal-ojuz mintza erzaite
 gure ta zure sendiyen kalte :
 zenbat zuk geigo, geigo eresi
 kontu, zaituzten ĩsoro irĩsi.
 Zertako zaude ara begira?
 euskal-mendiyak maite itzazu,
 artaldi dena bildu ezazu,
 t'atoz aguro zure errira;
 intsaur ta urrak, esti ta gasta,
 talo ta esne naikoa jan-ta,
 deadarzkizun gaur, bigar, etsi.....
 jah zenbat far-ta, zenbat irrintsij

 Bakoitzak euzka lurrera griñak,

Jaunak damagun mugatik kanpo,
gure ojuak ez diralako
ez itzt'ez soñu neurriz egiñak.
T'ez gera gu-re euskaldun denak
artzaya bezin eresle onak ;
ta naigo degu, ziñez agiyan,
eresi ere erdal erriyan?
Ez!..... emen bertan Jaunak jarriya
dago doatsu euskal-erriya.....
maite itzagun bere mendiyak,
berdin artzayen borda zuriyak!
¡O, nere Jauna, gabiltzanean
Zuk gura-ezta, besten echean,
orduán, Jauna, zer negargarri!
orduán gabiltz estu ta larri.
Choriyak ere badu kabiya,
abere denak etzin-tokiya.....
eta berean, char edo ona,
zurekin pozaz bego gizona.

RAMON INZAGARAY.

